

# Armanak Askara

edo



## iberouko Egunaria

1907 gerren ourtzeko

Jinkoa eta Herria !

Zuhurtarzuna eta lana !

Eta bizi bethi Uskalduna !

Iao ! Iao !

I-a-a-a-a-o-o-o-o-o-o !

SALTZEN DA

Maolen

DETCHEVERRY enian

Atharratzen

MENDIONDO-SANTZENIAN

Prezia : SOS BAT



## BEGITHARTE HORIEK :

- Ⓐ erran nabi da : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.  
Ⓑ “ Argizagi azken laordena.  
Ⓒ “ Gorapen hastia *edo* argizagi berri.  
Ⓓ “ Argizagi lehen laordena.
- 

## OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthailako* 3<sup>an</sup>; — HAOSTE, *baranthailako* 20<sup>an</sup>;  
— BAZKO, *jorrailako* 7<sup>an</sup>; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 13<sup>an</sup>,  
14<sup>an</sup> eta 15<sup>an</sup>; — SALBATORE, *maiatzeko* 16<sup>an</sup>; — PHENTEKOSTE,  
*maiatzeko* 26<sup>an</sup>; — BESTABERRI, *arramaiatzeko*, 6<sup>an</sup>; — ABEN-  
TUKO LEHEN IGANTIA, *abentu* 1<sup>an</sup>.

---

## LAOR THENPORAK :


Barant. 27 <sup>u</sup> . mart. 1 eta 2 <sup>n</sup> .	{	Buruilako 18 <sup>n</sup> , 20 <sup>n</sup> eta 21 <sup>n</sup> .
Maiatz 29 <sup>n</sup> , 31 <sup>n</sup> eta arram. 1 <sup>n</sup> .		Abentuko 18 <sup>n</sup> , 20 <sup>n</sup> eta 21 <sup>n</sup>

---

## EKKI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Argizagi ulhuntze maiatz 3<sup>an</sup>; pharte ikhousiren da Uskal Herrian. — EKKI ulhuntze osoa maiatz 17<sup>an</sup> ikhousiren eztena Uskal Herrian. — Argizagi ulhuntze, urrieta 27<sup>an</sup>, pharte ikhousiren dena Uskal Herrian. — EKKI ulhuntze azaro 10<sup>an</sup>; pharte ikhousiren da Uskal Herrian.






## ERRAN ZAHAR

---

1. Ditcha houna, noula beita bera utsu,  
Hari darraizkonak utsutzen dutu.
2. Dohain emana zerbait hoberen eske dago.
3. Dianak azer phiper.
4. Edozouin choriri eder bere habia.
5. Egik bathi, goitzia gatik.
6. Eginak eztu eginkezunik.
7. Egurra dagianak lekhu gaitzian,  
Ekharrí beharko du souinian.
8. Eihera houn da dabileno,  
Eta ez geldirik dagoeno.
9. Eiheran dadinak egon egi,  
Bidian laster begi.
10. Elhurra bere haroan asegarri,  
Hantik kanpoan gosegarri.
11. Elizatik hullanena.  
Altharetik hurrunena.
12. Emak zaretaz, bilha eztirok ahurretaz.
13. Emaitzak haosten tu haitzak.
14. Emaztia hartzen dianak ezkountsari hutsagati,  
Biharamuna du dolu eguna, gaitz darraikona gati.
15. Em'erdi oro zoro.





## HANITCH KHASU HOUNI

**Z**IBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., hora ourthe oroz behar da begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arrount.



## LIBRU BERRI USKARAZ

## USKAL NOELEN LILIA


*Hounturik Jesusen Inkarnazioiaren ouhouretan*

Eta orai harzara Uskaldunbatek ahaire  
Zaharrekin arra mouldaerazirik

## PARISEN

15, STANISLAS KARRIKAN, 15

*Frezioa : BOST SOS*



## OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.



- (E) a. o. 4<sup>n</sup>, gaiherdi eta 23<sup>min</sup>.
- (F) a. l. 12<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.
- (G) a. b. 20<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 45<sup>m</sup>.
- (H) l. l. 26<sup>n</sup>, arrastiriko oren 1<sup>an</sup>.

## BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren i eta erdiz.



- (E) a. o. 3<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 39<sup>m</sup>.
- (F) a. l. 11<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 21<sup>m</sup>.
- (G) a. b. 18<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 54<sup>m</sup>.
- (H) l. l. 25<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.

1 Asteharte.

2 Astizken.

3 Ostegun.

4 Ostirale.

5 Neskanegun.

6 **Igante.**

7 Astelehen.

8 Asteharte.

9 Astizken.

10 Ostegun.

11 Ostirale.

12 Neskanegun.

13 **Igante. 1.**

14 Astelehen.

15 Asteharte.

16 Astizken.

17 Ostegun.

18 Ostirale.

19 Neskanegun.

20 **Igante. 2.**

21 Astelehen.

22 Asteharte.

23 Astizken.

24 Ostegun.

25 Ostirale.

26 Neskanegun.

27 **Igante. 3.**

28 Astelehen.

29 Asteharte.

30 Astizken.

31 Ostegun.

ZIRKONZISION

s. Makari.

sa Jenevieve.

s. Rigobert.

sa Amelia.

APHARIZIO.

sa Melania.

s. Luzien.

s. Julien.

s. Gillen.

s. Teodose.

st Tazienna.

J. K. Bathelia.

s. Hilera.

s. Phaole, erm.

s. Marzel.

s. Antoni.

J. Phetir. Err. Jartia

s. Kanut.

s. Sebastian.

sa Añes.

s. Bizente.

A. B. Ezkontz.

s. Timote.

J. Phaoler kon.

s. Polikarpe.

sa Anjelika.

s. Zirilo.

s. Frantzes S.

sa Martina.

s. Petiri Nol.

1 Ostirale.

2 Neskanegun.

3 **Igante.**

4 Astelehen.

5 Asteharte.

6 Astizken.

7 Ostegun.

8 Ostirale.

9 Neskanegun.

10 **Igante.**

11 Astelehen.

12 Asteharte.

13 Astizken.

14 Ostegun.

15 Ostirale.

16 Neskanegun.

17 **Igante.**

18 Astelehen.

19 Asteharte.

20 Astizken.

21 Ostegun.

22 Ostirale.

23 Neskanegun.

24 **Igante.**

25 Astelehen.

26 Asteharte.

27 Astiz. IVTh.B.

28 Ostegun.

s. Iñazio.

KHANDERALLU

Zetuajezimo.

sa Jana, Val.

sa Agata.

sa Dorotea.

s. Romual.

s. Johane Mat.

sa Apolina.

Zetsajezimo.

A. B. Lourdakoa.

s. Jilbert.

s. Faosti.

s. Valenti.

sa Juliena.

s. Onesimo.

Kinkajezimo.

s. Flavien.

s. Konrad.

Haoste.

s. Eucher.

Elborr. Khor.

s. Petiri Dam.

GOROZUM 1<sup>a</sup>.

J. MATHIAS, ap.

s. Romano.

sa Onorina.

s. Rufi.



## MARTCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.

+++


- (1) a. o. 4<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 14<sup>m</sup>.
- (2) a. l. 13<sup>n</sup>, gaiko oren eta 16<sup>m</sup>.
- (3) a. b. 20<sup>n</sup>, gaiko oren eta 2<sup>min</sup>.
- (4) l. l. 26<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 48<sup>m</sup>.

## APHIRILA edo JORRAILA


Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.

+++

- (1) a. o. 3<sup>n</sup>, arrastiriko oren eta 29<sup>m</sup>.
- (2) a. l. 11<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 6<sup>m</sup>.
- (3) a. b. 18<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.
- (4) l. l. 25<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 24<sup>m</sup>.



1 Ostir. IV Th. B.	s. Leon, Baion.	1 Astelehen.	s. Huges.
2 Nesk. IV Th. B.	s. Zimplize.	2 Asteharte.	s. Frantzes, P.
3 <b>Igante.</b>	<i>Gorozumako 2<sup>a</sup>.</i>	3 Astizken.	s. Richart.
4 Astelehen.	s. Kasimir.	4 Ostegun.	Osteg. saintu.
5 Asteharte.	s. Luperkule.	5 Ostirale.	Ostir. saintu.
6 Astizken.	s <sup>a</sup> Koleta.	6 Neskanegun.	Nesk. saintu.
7 Ostegun.	s. Tomas Akin.	7 <b>Igante.</b>	BAZKO.
8 Ostirale.	<i>Suarlo sa.</i>	8 Astelehen.	s. Albert.
9 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Frantzes.	9 Asteharte.	s. Akazio.
10 <b>Igante.</b>	<i>Gorozumako 3<sup>a</sup>.</i>	10 Astizken.	s. Ezekiel.
11 Astelehen.	s. Konstanti.	11 Ostegun.	s. Leon hand.
12 Asteharte.	s. Gregori hand.	12 Ostirale.	s. Jules.
13 Astizken.	s <sup>a</sup> Ufrazia.	13 Neskanegun	s <sup>a</sup> Ermenejilda
14 Ostegun.	s <sup>a</sup> Matilda.	14 <b>Igante.</b> 1.	s. Justi.
15 Ostirale.	<i>J. K. Zaori Sak.</i>	15 Astelehen.	s <sup>a</sup> Anaztazia.
16 Neskanegun.	s. Ziriaka.	16 Asteharte.	s <sup>a</sup> Grazi.
17 <b>Igante.</b>	<i>Gorozumako 4<sup>a</sup>.</i>	17 Astizken.	s. Anizet.
18 Astelehen.	J. Gabriel, ark.	18 Ostegun.	s. Elutero.
19 Asteharte.	s. JUSEF.	19 Ostirale.	s. Leon IX.
20 Astizken.	s. Zirilo.	20 Neskanegun,	s. Teotimo.
21 Ostegun.	s. Benedit.	21 <b>Igante.</b> 2.	s. Anselmo.
22 Ostirale.	<i>J. K. Odol Prez.</i>	22 Astelehen.	s. Soter eta Kaio.
23 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Pelajia.	23 Asteharte.	s. Jorje.
24 <b>Igante.</b>	PASIONIA.	24 Astizken.	s. Zerazi.
25 Astelehen.	A. B. ANONTZ.	25 Ostegun.	J. MARK, Eb.
26 Asteharte.	s. Braolio.	26 Ostirale.	s. Klet.
27 Astizken.	s. Johane Dam.	27 Neskanegun.	s. Antimo.
28 Ostegun.	s. Justeñ.	28 <b>Igante.</b> 3.	s. Phaole, K.
29 Ostirale.	<i>A. B. Dolor.</i>	29 Astelehen.	s. Petiri, m.
30 Neskanegun.	s. Amadeo.	30 Asteharte.	s <sup>a</sup> Katalina.
31 <b>Igante.</b>	ERRAMU.		



## EGIAZKO ERRELIJIONIA

**A**RDURA entzuten dena zer nahi jenteren artian da gizonak behar diala erreligionetan; bena hanitchi uduri zaie bakhoitzak haita dirokiala erreligionetan nahi diana ; ezin badagoke gabe, edo zouin har, batetara douela.

Hola mintzo direnek zuhur daduzke beren buriak, eta entzuten dutien hanitchi, erran zuhurrak direla uduri zeitze. Noulaz ez? Zer da hoberik noula bat bederraren eitzia bere sinhestiaren jabe? Houn bezain doi den gaiza da hori. Ezta erreligionia bortchaz ounhetseraz daitekian gaizabat. Haita dezala arren bakhoitzak nahi diana, ihouri etzaio gaitzitu behar.

Erran horietan bada orotarik, egia eta gezur ; egiatik aphur, bestetik aldiz hanitch. Eta den egia khochia hor da gezurraren ehiago irets erazteko. Egunko egunian franko entzuten da hola mintzo ; eta bihotzmin egingarri dena, khiristi hanitchen ahotik jalkhitzen diren elhiak. Cheheroki ikher ditzagun, eta berhez egia gezurretik : ezpeitira orobat bata eta bestia, egia houn den bezain galgarri beita gezurra.

Egia dena da gizouna eztagokela erreligione gabetarik, eta gogoz chuchen direnek orok aithortzen die ; egia orano ihouri eztirokiela bortcharik egin sinhestebaten har erazteko. Ezi sinhestia beithari daodian gaiztarik da ; eta eztu ihourk bestebaten gogoan sartzeko eskurik. Nahi balu ere, ezliroke. Nourbaitek esteka diragozket bai eskiak, bai zankhoak, ni beno azkarrago delarik, ehaiten ere ahal nai. Bena bere

indar ororekin ezteit gogoan sar eraziko nahi eztudana.

Bena eztialakoz ihourk beste edo zouñi bortchurik egiteko ahalik, ez eta zuzenik ere, egia othe deia badiala bat bederak nahi dian erreligioniareneko haitia? Bai dioienak, ouste die erreligion guziak egiatik ari direla, eta direnak oro bardin houn direla.

Hanitchentako hori estakuru houn bat da egiazko erreligioniareneko bazterrialat ezarteko, edo phuru haren manier ez haboro jarraikitze. Eta emeki emeki higanaoten antzo bilhakatzen dira, zerbait sinheste berbera gogoan begiratzen dielarik. Uduri zaie sinheste kochiaren ukheitia aski dela, eta bizi dira geroaren den gutieneko acholik gabe. Haiek die gehienik erranen zer nahi erreligioneri jarraikitia orobat dela.

Egia da erreligion haboroek, edo erreligion izena merechi dienek, daduz keitzela egia elibat, hala noula: Jinkobat badela, zelu lurren naousi dena, ororen ezdeusetarik egilia, badiala gizounak arimabat, bethi irañen diana, eta besterik orano. Bena eztira oro hortan, eta erraitia erreligioniak oro bardin direla, da higanaot bat bezala mintzatzia.

Sogizie higanaoter: Bibla irakourtzen die, zerbait sinheste badie Jinkoaren manietan gañen, bena ez Elizarenetan; Houn hartzen die ere Ebanjelioa, bena dioie gizounak badiala bere beithan argirik aski, kanpotikako erakouspenik gabe; khiristi bakhoitzak beraortarik berhez ditirokiala libru saintietan Naousiak eitzi erakouspenak. Higanaotek ouste orano, erraiten phuru bai, fedia aski dela obra hounik batere gabe. Zounbat khiristi ezta, elizan aphurbat ebilten direnetan ere, holako gogoan eroaiten dienik?

Segur da Salbazaliak eman diala bere apostolier eta haien ondokoer bere Elizaren gobernatzeko mezia eta photeria, eta saintutarzunian eta egian gidatzekoa. Gizounek egin lirokien lanbat deia hori? Ezi apostoliak eta aphezak hilzale dira, bekhatore eta gezurrari

aiher, gizounkentia oro bezala. Noula burutuko die arren lan hori ?

Zounbat nahi sinhestian segurtaturik izanik ere Jesus Kristez beraz, zounbat nahi ountsa begiraturik ere garbi bere denborako judio eta paganoer erakoutsi behar zutien Buruzagiak berak eman fedia eta egiak, nountik bildu die, haiek bai eta haien ondokoek errelijioniaren hedea erazteko, eta Jesusen erakouspenen osorik eta garbi hemeretzu ehun ourthez arrount edukitzeko indarra ? Badeia bakhoitzik hain luzaz irain dianik ? Ez. Hor dago Eliza Jesus Kristek ezari zianian bezala, eta hortik beretik ageri da Jinkoak eman derola bere indarra eta bere Ezpiritia.

Bada arren sinhestebat bethi berbera ; bada bestebat ez erraiten diana lehen harek bai erraiten dian gaiza hanitchetan gañen. Hori bera, gorago Jesus Kristen errelijioniaren hastapenaz eta iraitiaz erran tugunetarik kanko, aski da ikhous erazteko zouñen zoroki mintzo diren dioienek bakhoitzak haita dirokiala edo zouin errelijione, oro bat direlako estakurian. Eta errelijione izena dien sinhestetan, bat denaz geroz bethi bera, bakhoitzik egia, ezpeitira biga orobat mintzo direnik, hora baizik eztiroke haita gizounak. Haborodena, hora du ere lehen lehenik bilhatu behar eta ounhetsi, hari zaio behar jarraiki, ezagutuz geroz. Orobak, ouste egiazko sinhestebat hartu dianari, ohartzen zaionian eztela behin uduritu zaion bezalakoa, behar du nour bederak eitzigezurra bazterrialat, eta egiari jarraikitera ahal oroz lehiatu. Ihourk eztiro ukha horik direla gizounaren eginbidiak, bestela aritzez, tchipitzen diala bere buria, eta bere arimaren galzera douela.

\*

Henri laorgerrenaren denboran, izan zen Parise khantian erregereren aitzinian aphezkupu, eta higa-naot ministro edo aphez biltzarrenbat.

Erregek ikhoustiareki ministro bakhoitz bat etzela

phekatzén ukhatzera salbatzen ahal zela Erreligionen  
katolikoan haien buruz ungaraturik erran zeren :  
« Arren, orori uduri zaizie salbamentia egiten ahal  
dela erreligionen katolikoari jarraikitzez ? » Batak ihar-  
detsi beraen eta besteren izenian baietz, etzela horrez  
den gutieneko dudarik, bizitze chuchena eroaiten  
zelarik. « Eta ziék, erregiak aitzina, aphezkupier  
buruz mintzo zelarik, ouste duzieia ene salbamentia  
egin dirokedala higanaot egoitez ? » — « Ouste dizugu,  
Jaona, aphezkupiek arrapostu, eta erraiten derizugu,  
egiazko Eliza eta erreligionia ezagutu tuzunaz geroz,  
hartan sartzena bortchatu zirela, eta eztela zoure ari-  
marentako salbamenturik higanaot erreligionian. »

Erregek ordian, berriz utzultzen zelarik higanaot  
aphezer buruz : « Ounsa beno hobeki eginen dit,  
jaonak, erreligionen katolikoan sartzez, ziena eitzirik ;  
ezi katoliko jartez, zien eta aphezkupu heben diren  
hoien araoera, salbatuko nuzu ; zien erreligionian  
egoitez salbatuko nuzu ere diozienaz, bena ez katoliko  
hoien erranaren arao. Enetako arren segurrena dateke  
erreligionen katolikoaren hartzia. » Eta erran bezala  
egin zian.

USKARA ETA USKAL HERRIA

**U**SKALDUN gira, bai nahi ere, dio khantorebatek.  
Etzait uduri badaitekiala mundu hountan deu-  
sere hanbat gizounaren bihotzari hullantikago  
etcheckara direnik, erreligioniaz bestalde, noula beitira  
sor herria eta sor herriko mintzoa.

Eniz mintzatuko sor herriaz oraikoan, bena bai  
orano galtzeratuko den uskaraz, ezpagira lehen beno  
lehen horri ohartzen. Ordu baizik ezta.

Aiphatu tut orai beno lehen goure mintzo ezinago ederraren etsaietarik zounbait ; egun besten alde, eta gogoan dutudanak oro erran geian niz, ez orori atse egunik ere.

Diala denbora phouskabat Laphourtabatek izkiri batzen zian : « Arrotzak bezañ arrozki mintzo dira heben bereko, Uskal Herriko semiak frankotan. Herrian sorthiek, heben haziak, eta bethi heben bizi direnek eztakie uskara. Zer uskaldunak ! Ahalkerik gabe aithortuko deizie hanitcheak uskaran beno trebiago direla frantzesian. Eder zaie, de parler toujours français, uskara eitzirik, zuntzurretiako errha bat eginez, uduri eztakit zer eta nour direla. Balakie berere ountsa frantzes ? Bena bat ahazten die edo ahatziaren eitzen, bestia ikhasi gabe.

« Badira beste elibat orano, bere oustez uskara dakiena. Ouste die ere uskaraz mintzo direla. Beha ziteie halakoer : bi beharriak thapaturik ihesiari emangarri da haien entzutia. Hanitchi uduri zaie frantzes hitzbat, uskaraz mintzatzian ederrago datekiala, eta gero zer nahitarik uskara eginen derezie. Ezta hori egunko salsa : holache eta aspaldi danik egunik izan dira frantzes-uskarazko hitz zounbait, hala noula : besta, banka, bortha, pantaloua, jileta... Artetik erran dezadan souñeko eta houñetako guzien izenak galdu tugula. Athorras gelditzera doa goure uskara gaichoa ; ezi athora izena baizik etzaiku jadanik baratzen uskara garbitik. Houra galdu, eta debriak eroanen du Manech. Bilaizgorri beharko da ibili, edo españoulez, frantzesez edo anglesez beztitu.

« Horra zertaratiak giren, eta utchura guzien arao-era tarrapatan : hola dugu uskara mintzoa, goure hountarzun ederra, galtzen edo ezabatzen eizten. Zounbat uskal hitz ezta galdu orai artekan, eta galtzen egun oroz ? Denik ere laborari menditarrek hein batetan oso eta garbi daduzke mintzoa ; bena frantzes

izpibat tchestatuz geroz, jo aitzina, oro hartarik eman behar. »

Horik oro egia handiak ; eta ezin ukhatia da Uskaldun argitiak, zerbait eskola dienak direla uskararen galzian ogendunuenak, eta ororen gañetik eskoletako naousiak, ala errejent, ala fraide, ala errejentsa ala serora, gehienik ere menturaz serorak. Areta enintzate gaizki mintzatu nahi goure haoren hounki egilerik handienetzaz. Halarik ere egia erran beharda bethi. Eztu uskarak ogen egile handienik, Uskal Herri bazterretan ala erdian, herri handi eta tchipietan noula beitira buruzagi horik oro. Usian goberniak igorten dereizku errejent eta errejentsa biarnesak, eta ez haizu haorrak haien aitzinian uskaraz mintzatzera.

Libru baten bethia balizate heben erraiteko, Uskal Herriko elizetan uskaraz mintzatziaren gañen. Aiphatu behar nutuke, bai nahi ere uskarazko katichima eta othoitz libru, ourthoroz gutitzen ari direnak, zeren egunko egunian zerbait eta nourbait direla ouste dien aitama uskaldunek beren haoren eskietan libru frantzesak ikhousi nahiago beitutie, eziaz uskarazkoak, haor gaizoek frantzeska ez ountsa jakinik ere.

Aitamak beno haboro beharbada hortan ogendun dirade eskoletako aintzindariak, eta gehienik fraide eta serorak. Ezi oraiko errejent eta errejentsek achola guti die elizako libriez eta katichimaz. Bena eskola khiristietako buruzagiek zounbat frantzes libru eztutie sarerazten uskaldun elizetan. Estakuru franko budsondriez emaiteko : frantzesian trebiago direla haor batzu eziez uskaran. Eztela hori batere egia. Eta hala baliz hanbat gaichtoago. Sor mintzoa eitzirik bestebat nahiago dianak ahatzeko du laster mintzoaz besterik.

Hots, aitama eta haoren eraikizaliak, ikhas craz haorrer nahi bezainbat frantzes : bena erreligioneko erakaspenak oro eman itzetzie edo eman eraz bethi uskaraz. Uskaraz katichima, uskaraz goiz arratzetako

othoitziak, uskaraz irakour eraz meza denborako othoitziak.

Zouñ herrian, arrotz bat edo beste delakoz hasi dira aphezak pherediku frantzesbaten emaiten nouizian behin, eta katichma bethi frantzesez ikhas erazten. Lan ezinago handia zaie uskaraz ikhaseraztia uskalduner, frantzesez arrotzer. Areta eztie zounbaitek phuru, ikhousten dugunaz, denbora eskazik ez eta indar mentsik...

Ezin bestian, ahal dena egiten da : erdi uskaldun erdi biarnes edo gaskouin nahastekaturik diren parropietan, ezin eitz herriaren erdia edo herena bazterrialat, beste erdiaren chollki arthatzeko. Halere zounbait herrian ezin burutian egiten dena nahi lukie eztakit zounbat herritara hedatu, behar unerik gabe. Ezta guitarik douakiена ; bena bestiak mintzo direnaz geroz, guk beno ikhousteko gehiago eztielarik, ez othe dirokegu arren guk ere erran gogoan duguna?

Erreligionia ororentako da ; bena bego herrian herriko mintzoa naousi, Uskal Herrian uskara. Uskara eztakienek aski die ikhastia : Jinkoari esker badukie arrotz hoietarik haboroek ikhasteko artia edo aizina, guk haienaren ikhasteko dukegun beno haboro.

Nik gogoan eroaiten dudana da uskaraz bezain griña guti diela arrotzek erreligioniaz ; behinik behin kargudunetan hamarretarik bederatziek, puchulu guti elizan. Orano luzaz egoiteko edo bethikoz jiten balire Uskal-Herrilat, aphezak baluke haien konbertitzeko esparantcha khochia. Bena egun jin, bihar joan, dira. Elizatiar diren bekhanak ichilka eta gordatzez dabilta, buruzagien, edo lekhuko gorrien beldurrez.

Nourentako arren frantzes pherediku Uskal Herrian ? Ala Espanañan bezala egiteko ? Ez balinba ! Mendiaz bestaldeko Uskal herri haboroetan, aspaldi hountan, igorten dutie erretor edo bikari uskal hitzik eztakien aphez batzu. Zer agitzenda gero han gainti ? Aphez espanoulek uskararik ez jakinez, pheredikatzen

diela Uskalduner españoulez; eta gero aditzeñ eztienek egin dezela ahoan khurutche. Ez direlakoz mintzo elizetan uskaraz, katichma ere españoulez egiten die-lakoz aphezek, hainbestetarano da mendiaz bestal-dian uskara ezabatzen ari, noun, azken berrogeita hamar ourthe hountan, españoul mintzoa chahu sar-thu beita Uskal herriaren herenian, eta eremu hortan ezpeitakie haboro emaiten uskal hitzbat ere.

Frantzian halere eztugu orano holakorik. Zeren-tako erretor eta bikari gaztek berere, erran nahi dut frantchimantari aiherrenik direnek, eztie gogoan har-tuko uskararen behar bezala beraiek ikhastia, eta behar ordian bester ikhas eraztia? Orai artekan aphe-zek die gehienik chutik eduki goure mintzoa. Hortarik eman beze bethi gaztek, pheredikatzez eta katichma egitez uskaraz, eta elizatik kanpo bethi edo ardurenik uskaraz mintzatzuz. Zountbat nahi etsai ukhenik ere, hola ariko direno, uskarak luzaz irañen du.

Gorago aiphatu dutut uskararen etsaien artian es-koletako buruzagiak oro kasik. Eskolan haorrak mint-zatu behar frantzesez, libertitzian ere; eta eskolatik kanpo direneko, badie frantzesez mintzatzeko mania, zuzenik batere gabe eskolako aitzindarieki emaiten diena.

Oraiko eskoletan hanitch eta hanitch ikhasten da goure gaztezaroan ikhasten ezgunianik; eztu balio aiphatzia haorren eskietan ezarten dutien libru ororen izenak. Eztugu segur hainbeste ikhasi eta halere ez geroan tonto bilhakatu. Eta duda dut oraiko haorrekin bere jakitate erdi aoher ororeki guk beno jaozia han-diago eginen dienez.

Behinere, deusetako baliaturen zaitzen jakitate eli-bat achaletik ousouki bat tchesta, uduri zerbait; jakit-tate hourak bezañ aoher berak bilhaka, lur lanetako herabiaren biltzeko doia; eta gero hein batetara hel-ziarekin kaskoa hutsa. Ikhasi behar lutukienak jakin

gabe geldi, hala noula beitira erreligionia eta sor herriko mintzoa.

Buruzagiek ez haizu eizten uskaraz mintzatzen, uskaraz izkiribatzen ikhasi beharragorik, eta hori, eskolatik kanpo, batere den gutieneko zuzenik gabe. Eztakit zer egin deien uskarak errejenter, bera oro, bai herriko seme, bai kanpotik jinik direnak, uskarren ezinago etsai burhagertzen dira.

Sogin dezagun zer gerthatzen den Biarnoko eskolan. Hanko errejenter herriko mintzoa aski eder zaie eizten dutienaz geroz haorrak biarnesez mintzatzen eskola hutsartean, ez padira berak ere haorrekin biarnesez mintzo. Haboro dena, diala bi edo hirour ourthe egin dienian biltzarrenbat, escole Gastou Phæbus dena, biarnesez koblakan aritzeko eta izkiribatzeko errejent hanitch sarthu dira hartan, eta, dakidalarik, haietan dutie merechitu koblakari hobener eman dutien sari haboroak. Izan zen ere azken ourthian errejent semebat saristaturik : nahiz etzian hamalaor ourthe baizik eijerki hountu zutian koblak.


Horra arren aldebatetik Uskal-Herriko errejentak uskararen etsai, eta bestaldetik Biarnokoak biarnes mintzoaren adichkide eta habe houn ! Haizu deia goure herriko mugetarik kanpo hounaintian sori eztena ? Ezkireia oro batak eta bestiak ber legen pian ? Zertako arren goure errejentak hola gahartzen dira uskarari ? Haorrekeztukieia balhune haborochago eskolatik kanpo uskaraz mintzatzeko zounbat nahi errejentek ez nahi ukhenik ere ? Zerentako goure errejentek berek eztie aizokoek bezala eginen ?

Ezi bi mintzoren jakitia abantalla da zounbat nahi guti uduri dian. Goure aitzinekoek bazakien uskara, erran gabe, bai eta frantzesca edo biarnesa. Galtha itchasoaz bestaldilat joan diener zounen aisa ikhasi tien izan diren herrietako mintzoak ; zeren tako frantzmanek hain nekez ikhasten tie arrotz mintzoak ? Zeren eta haorzarotik ezpeitie frantzesca baizik eman.

Goiz danik ezpiritia ernatzen da bi mintzo behar de-nian ikhasi, eta ez paliz abantalla hori baizik azki li-zate uskararen houn har erazteko eskoletan.



## ABARIZIA APHURBAT



**B**EHERE hortan bada erran zahar haou, abarizia amiñibat houndela edo behar dela. Segur zuk, khiristi houn zirena, ihardetsiko deitadazu abarizia bekhatu gehienetarik batdela, eta guti edo hanitch, eztela batere hartarik behar. Badakit hori segur; bena badakit ere badirela gaiza itchousi elibat, heinttobatetan halere houn direnak. Hetarik bat, bai, heben aiphatzen duguna.

Joan ninzan behin Uskal Herriko chokobatetara ezagun zaharbaten ikuhostera. Adichkide houra gizoun zuhurra zen, bere gogoari etchekirik ; harekin ninzan aldi oroz, zerbaite elhe orhitgarri entzuten nian haren ahotik. Noula gorago aiphatu houra : abarizia khochia houndela. Mintzo ginene buruz buru, uskal-dun laborarien bizitziaz. Badakizie : nour berak nour edo zer beitu gehienik maite, eta hora ardurenik gogoan : hartaz da usienik mintzo, ezta hala ?

Guk holatan goure elhesta laborariez gunian. Batak haou, bestiak hora erran, elhetik elhera ; lur eta etchalte, lan eta jan, lehen eta orai eta geroko gora beherak erabili guntian.

« Gaicho laborariak, izerdi hounik jaozten zaie goizetik arrats, berheziki udako beroetan ! hola ne-katzez beren ogia irabazi dukie. — Bai segur, eta ogiarekilako jakia ere. — Atse egiten du holako jen-ten artian bizitzia. Lana baizik eztie deus gogoan, eta lurrari bethi etchekara, hor bethi lurrareki gudu-

kan ari direlarik jaidura tzar guti eta gaichto guti ezin erabilten die. Damurik dira diren bezain irabaziari etchekirik. — Zer diozu? — Ez othe dira lurraldi eta lurreko hountarzuner, bereberki dihariari sobera etchekirik franko laborari? Bethikoz mundu hountan bagine bezala bizi zaizkitzu, geroaz arrankurarik gabe. Bil bil, bethi bil, eta gero begira tinki. »

Errana erran: bi begietara so jarri zeitan adichkidia zioalarik: Hots, eztuzu hortan gaichkia handi; abarizia aphurbat houn duzu holako jente houn hoientako, eta berriz erran zeitan: bai, abarizia aphurbat.

Geroztik adichkide zaharraren errana jin zeit hanitchetan gogoala, eta geroago eta zuhurrago agertzen zait. Hein batetan bai; bena beldur niz hein hartaratzeko sobera beno eskaz gehiago dukegula. Hanitcheak eztie sosari eskerrrik batere deusentako ezpaliz bezala darabilate harat hounat. Biltzeko benia dienek ere frankotan eztie bildiaren begiratziaz acharlak. Heltia jan edo edan, edo orano gaiza aoherrethan igor; arri aitzina, mandoa. Ezta egia bezalakorik: debriak eroan du zuhurtzia: urgulliak, gormandizak, ezacholkeriak ezestatu die abarizia. Hainbestetarano noun ezpeitugu haboro ihour nihoun ikhousiko abariziotako ezagutia denik.

Houn lizate hori segur, ezpagine gaitz batetarik beste biga, hirour edo laor etara erori: gaitz horik beno galgarriago: herabia, orrikeria, ouhouintza. Ezi ezta hor harat hounatik: ouhouintza da zorrak direnian, hourak ahatzerik diharia noula nahika era-biltia. Zuhurki behar lizate begiratu besten gaiza. Nour da hortaz orhitzen?

Orhitzen?... ez hortaz, ez eta deus hanbatez ihour. Mouthiko gaztiak, neskatila gaztiak, algarren oundotik dabilzala sakolak hutsik ikhousiko dutuzie. Bazu-kielarik zerbait, jakin ukhen balie begiratzen.

Aitamak bardin ezachol beren haorretan gañen. Aita bethi ostatu zokhoz zokho, aste guzikor irabazien

chahatzen gaibatez edo bigez. Ama etchen nigarrez, ezpada zouin aldiz bera edaritan edo ezdeuskeriatan sos oundarren aizatzen. Eta gero, behar ordian, gogoan eroaiten : Ai ! urgullu gutichago ... eta beste hartarik haborochago ukhen bagunu azken ourthe hoietan ! Beste orduz, phuru, zaharrak gaztiak beno zuhurrago ziren. Zaharrak berak usu orai gaztiak uduri bilhakatzen.

Ezta behar dihariari sobera estekatia izan, bera hein batez bai. Franko gastuphidetarik begira gitzake estekamentu zuzenezko horrek, eta hori da egiazko zuhurtzia. Eman ezozie nahi duzien izena. Hori gabe, nahi eta ez, goiz edo berant errekalaturik baizik etzitzazke bizi. Zorgaitza geroaz orhitzen ezte-nari ! Beste munduko geroaz bezain egia da hori heben berekoaz aiphu.



## LABORANTCHAZ



### I. Uztak 1900<sup>an</sup>

AZKENEKOZ jakin die bazterretako berri, eta zertsu izan diren urhentzen ari den ourthe hountako uztak. Ogiak aiphu eraiki die Frantziar, goberniak dioana, ehun eta bederatzu miliouogi zaku, hamahirour miliou aitzineko ourthian benogutiago. Bena noula azken bi ourthetan ogi uztanasai izan beita, eta baratzen orano ogi zaharretarik ountsatto, eztateke ourthaldia zounbaitek ouste lukien bezain tchar. Zounbaitek dioie goberniak eman chifria goregi dela bi miliouz. Erran daite uztak houn izandela orotan, salbu eta lur eremu handirik bihitaneñ dutien eretzetan. Ereitiak berant egi egin zutien ; izotzek ogiak eiharterazi apha-lunetan, eurieta-

landan, ezpeitziren aski gorenturik. Behar ukhen dutie gune haietan arra ereñ; bena bedatsian ereñ ogia ezta hullanik ere negukoia bezainbat arpatzen, eta uzta halaz tchipiago agitu. Haboroetan bihia eder agitu, eta lastoa aldiz llaburutto. Ogi buriak ere etzian utchurak emaiten zian bezainbeste bihi.

Atze herrieta uzta eskazbat izan da goure herrian bezala. Halere ezta ogia khariotu orano ja. Areta ogi hanitch egiten dien eretzetan ountsa nahi lukie saldu zerbaite mouzkin egiteko gisan! Bena arrakharderrek eta judioek izkiriba erazten die gasetetan bihia Frantzian eztela net houn izan, eta ohi beno hanitchez haboro beharko dela atze herrietako ogitik; eztela behar eitzi prezioa gorentzera ezipadie nahi ophila prezio handiegian sal erazi. Ogi dianak saltzeko ountsa eginen du ugurukitia ahalaz berant saldu gabe nahi badu bere ogitik zerbaite mouzkin idoki. Ugurukietzirokianak zerentako eztu *warrantatuko?* Ordu dateke harentako lege berri horrez baliatzia.

Mahastiek orotan eman die: ardoa maite dienek ahal die amets ederrik egiten; edanen die ardou merke eta hounik aorthen. Hatik euria jinik mahatsaren biltzeeko phuntian, guneka hirotu do.

Diala zazpi ourtheko uduri idortebat egin du aorthen Frantzia beherian. Belhar guti egin die, eta zoun lekhutan batere. Bazkagei zounbaitek eman die uzta doibat hala noula treflak, faronchak, etc. Betarraba azi hanitch eztira altchatu, lurra idorregiz, eta alchatu direnak ez net hazi: uzta eskazbat emandie. Idortiak luzaz irain dian gunetan ezta batere arradallik izan, eta kabaliak ezin alhatuz hanitch behar ukhen die saldu.

Olho izan da doi doia, eta lastoa ezinago llabur baratu azken ereñetan; zounbait lekhutan hortik badeke iraorgei ments handia. — Lursagar guti bazen dena houn halere, eta eztu eritarzunak beste ourthez bezala jo. Ahal bezain luzaz begiratu ahal dukianak

ountsa eginen du ; ezi bortchaz uzta eskaz delakoz prezioak gorentuko dira, eta geroago sal eta mouzkina handiago dukie lursagarrek.

Fruta bazen orotan gaintika : aspaldiko ourthetan sagarardou egiten dien eretzetan etzien hainbeste sagar bildu.

Bazka mentsak zinez aphal erazi dutu kalaben prezioak, eta hori dateke laborantcharentako gaitzik handiena. Igaran ourthian jadanik hanitch aphal ziren eta ezta gorentezen esparantcharik batere : ezin haziz franko kabaledunek bortchatu dirateke bere kabalen saltzera, eta bethi agitzen den bezala holako khasietan, eztie hetarik eginen mouzkin handirik. Guneka ahalaz luze hazikotie kabaliak *tourteaux* eta *drèches* direnekin. Bena horik nekez baliatzen ahal dira fabriketarak hurrun diren bazterretan. Halere syndikaten bidez, hanitch laborari algarreki juntatzez, aski merke erosten ahal dira, eta igor sariak eztira hullanik ere hañ handi batbederak ekhar erazten balitza bezala.

*Ziberouko eta Uskal Herriko uzten berri.* Ogiak abio ederra ukhen zian, bena eztu eman hatsarrian uduri lukian bezanbat, idortia geroan jin delakoz. Halere guneka eztira bestetan bezala hutsall buriak agitu. Artho uzta arteko, haboroetan ; nekez egin zutien ereitziak zouñ lekhutan, eta idorregiz lanthariak ez behar bezala hazi.

Lursagarrak chuhurki eman du aorthen : horra zer-tako hain khario bilhatu den biltzetik laster. Den gutia ountsa beharko da arthatu ahal bezain luze irain dezan ; beharko da ezari eretze idorrian, ahalaz guti atheturik, hotzak hounki gabe, airia aldatuko zaion gisan.

Ilharrek han hebenka chahu huts egin die, ezpeita-teke thiipiñaren hobe. Zounbait lekhutan aosarkitto izan da, bena nihoun ere soberakinik.

Betaraba erein dien lekhietan izan da, eta utchura ederreko ; ñabo guti egiten die Ziberoan eztakit zeren-

tako. Areta laborarieki laguntza houna lukie bazka hortan. Eta kabaliak berazanetara alha igor ordutan hanitchez hobeki egin liroie, ñabo ereiten balie ogiak sartru bezain sarri. Lurrarentako ere abantalla handializate: ezi ereitze haren egiteko belhar gaichtoak gale-razi behar dira eta oundoko ourtheko lurrak chahiago bilhatzen.

Mahatsak eman du, bestetan bezala goure herrian, eta ardou hounik edanen da. Bena filotzera den eritzuna sartzen arida zounbait lekhutan. Daigun ourthian mintzatuko gira armanak hountan eritarzun horrez, eta ezagut eraziko zer bidez begiratzen ahal den aihen ondoua. Oraiko eztut erranen besterik, khedarre ezartez ondo ondouari zounbaitek gaitza gibeltudiela baizik.

## II. — Kabaletako eritzuna.

Bada eritzunbat joan den ourthian kabaletan ogen handia egin diana zouñ erezetan. Ouste zien, negian ezpeitzen, chahu ezabaturik zela. Bena bedatsian arraphiztu da han heben eta khasik alde orotara hedatu. Deitzen die frantzesez : *fièvre aphteuse*, erran nahi beita uskaraz, sukhar phintzduna. Ezi kabale erier jaozten zeitze phintz elibat bai ahoan, bai errapian bai behatzarteko edo azazkulien alde gañeko larru mehian. Phintz horik agertzen ohi dira bai hirour gune horietan batetan, bai bakhoitzian aldizkatzez. Zouñ aldiz ere, jaoziko dira gunebat etan berbera, bestetan agertu gabe.

Zertarik ezagun den gaitza haboroek badakie : kabaliak begia hil hila du, herabe da ebiltera, nekez lotzen da janhariari eta berheziki idorrari. Ordian zabaltzen bazaio ahoa ikhousten da phintzez betherik dela. Hourak laster lehertzen dira eta landan baratzen zaori elibat ezinago minbera. Halaz nekez alha da aberia eta ahoaren bi aldetarik erorten zaio elder gizenbat. Hatsarrian phintzak lekhuka agertzen dira,

gero usian aho orotara hedatzen, eta algarreki junta-turik egiten die zaori handibat bezala. Eta ordian gehienik neke zaio kabaliari deusen ere ahora hartzia edo ahoan erabilkatzia.

Orobak gaitza phizten denian zankhoetan, ezin dagoke chutik kabalia; nekez igitzen da, eta, borthitz denian, gaitzak azazkuliak jaozerazten: kabalia ordian nekez eta hanitch baratch sendotzen, eta haboroetan hiltzen. Erran behar da hatik bekhan dela eritarzuna hilkor, eztunian baratzen delakoz usian. Behi eznaduner eznia gutitzen zaie eta phintzik balinbada errape-tan, ezinago nekez den ezne guti hora jeisten.

Khozu da eritarzuna: eta khozia jiten da gehienik ahoko bahutsetik, ere kabaliak algarreki egoiten dire-lakoz. Phintz lehertiarik jaozten den elderra bardin khozu eta hountkitzen tian kabaler eritarzuna emaiten ahal deie. Orobak zankhoetako bai errapeko phintzeta-rik jaozi irazkiak eman diroke gaitzaren khozia. Jeitchi dianak kabale eribat, ber eskiaz, chahatu gabe, jeis-ten balinbatu behi senthoak emaiten ahal dere gaitza. Zounbaitek ouste die kabale eriaren hatsa bera aski dela besten khozatzeko, nahiz elderrak segurrago gaitza emaiten dian.

Zer egin behar da eritarzunari ihesi egiteko edo sendo erazteko sarthurik denian artelibat etan. Kabale eririk batere eztiana oharturen da ez aizoko erieki nahas eiztera, balinbada: khozu denaz geroz gaitza kabale erien eta senthoen ez algarreki eiztia da lehen lehen lana.

Eribat agitzen denian arthelian, edo haboro, hourak berhezi beharko dira lehen beno lehen, eta ezari beste lekhubat etan ez jalkhiteko gisan.

Gero, kabale senthoak kanpo igor, eta beharko da eskuderia guzia beheretik eta gañiala drano erhaz-tatu, eta pharetiak latsun hourian igaran. Gorotzari, idoki beno lehen beharko zaio bitriol hour ezari, eta lurra oro ber hourareki ihiztatu, boustatzeko gisan.

Oundoko egunetan aski dateke egoistia bai lurran gaña bai chokhouetara bitriol erhaostu amiñi bat. Hartuko da bitriol berdetik, bluia beno hanitchez merkiago delakoz, bardin indar dilarik. Beharko dira manjaterak ere eta zoureria oro chahatu edo igan- ran phuru oihal bitriol hourez boustirik den batez, berheziki kabale eriak ziren gunetan. Horik orok hartuko die zounbait orenen ungurunia. Idortuche datekenian eskuderia edo heipia, sar eraziko dira kaba- liak.

Kabale eriak ezari lekhian beharko da lurran gaña egoitchi bitriol erhaostutik. Gero kabaliak berak egunian berritan edo hirour aldiz behar bezala arthat u. Phintzak diren guniak oro beharkodira chahatu bitriol hourez (ezarten delarik boutillabat hour entako 50 grama phezu bitriol). Hori bera aski lizate eritarzunak guti harturik diren kabalentako. Erran beharda bitriol sendogalliaz besterik badela. Beauvais den hiriko laborantchako eskolan gehienik gomendatzen diena da *l'aphtosine* hora. Khosta da bost kabale erientako sei libera, hamarentako hamar, eta hogei entako ha- masei. Saltzen da sendogallu hori, hiri hartan berian Bataille deitzen den poutikairiaenian. Zer nahi egari- rik gomendatzen tien hour hoietan, zaorthiak diren guniak oro ahalbezain chahu edukitez, kabaliak bertan sendotuko dira.

Noula gaitzak ahoan zinez etchekitzentz tianan, ezpe- tie kabalek nekez baizik jaten akal, beharko zeie eman egunian bietarik eta bostetara drano ahoan erabiliko behar eztukien janhari zerbait : hala noula boulliga mehe, zer nahi irineki eginik, artho irin, ogi irin, bai eta lur sagar lehertuz. Ounsa egosirik beharko da eman. Jan aitzinetik houn dateke ahoaren chahatzia hour beroz, eta jan oundouan bitriol hourez, edo ai- phatu beste hour batekin. Zounbait laborarik esprabi die houn dela behin boulliari ezartia ardou chouri iñharbat, pintoubaten heña, behi ederbatentako.

### III. — Laborantchako eskolabat.

Zounbait ourthe hountan Frantziako ernetze orotan egin die laborantchako eskola berri. Lehenago etzen hamarrak ere; orai aldiz bada berrogeiez goiti. Ezin ukhatia da laboraria eztela bere egitekoetan burutan joaiten ahal urhats zaharrer jaïraikitzez. Atze herriek konkurrentzia handia egiten deikie, eta indarkatu behar, haiiek beno hobeki egiteko. Hartakoz tie egin han hebenka eskola berri. Laborari hanitchek ouste zien laborantchan eztaitekiala berritzapenik : bena orotan orai, ikhoustez errekalat ari zirela lehenagoko asturitarik aritez, gogoan hartu die zerbait gehichago egin behar dela, edo iseiatu phuru.

Haboroek erranen die orano : Zer eskola behar du laborari semebatek ? Ez othe dutu etchaltian berian ikhasi ahalko laborantchari doatzanak ? Aitak eroan urhatsetarik ebilikо dira ere semiak. Zer arren ? Nahi lukie jaonturik ezar ditzaguн goure haorrak holako eskoletan, gero laneko gogorik batere ezpeitukie !

Erran beharda oraiko herrieskoletan haorreki ikasten diela gaiza aoher hanitch eta hanitch. Eta bardinetik ari balire laborantchako eskola berriak, balitzakeie laborier haoren ez haietara igortia. Bena sogn dezagun bestaldetako laborariekin noula egiten dien : laborantchako eskola guziak oro betherik ; haietara joaiten laborari handienen semiak. Ezi aferma handi phakatu behar dienek, eta bada hogeitahamar mila liberaz goitiko, zerbait houn une ezagutzen dere eskola haier, berak han izanik bere semiak berriz haietara igorten dutienaz geroz. Sinhesteko da arren zerbait abantalla daduzkela.

Orai berri Paube khantian ezari die laborantchako eskolabat, Frantzia orotan direnak uduri, bena zerbait erakouspen berheziekin goure alderdi mendiziarentako. Eskola hortan nahi die laborari semereman laborantchari daodianetan, zouñek bere etchian har liza-

kian beno jakitate haboro. Ezta dudarik hortan ountsa beno hobeki ari dela. Guti dira, zerbaitek ikhousi eta entzun dienetan, aithortzen eztienek, bai mouldez, bai tresnaz, bai hounkalluz, bai eta zertzaz orano, laborantchak hanitch irabazi diala azken ourthe hoietan ; badiela arren laborari semek zer ikhas, etchekoek erakouts ez litzekeienik, berek ez jakinez, edo gaichkiegi jakinez. Bestalde orok ehi ikhousten diena da lurrari ezpaderio laborariak eman erazten mentez aski uduritu zaionaz goiti, eztatekiala harentako bizitzerik.

Ezi hanitch mehaturik dira laborantchatik idokitzenten diren mouzkinak ; langiliak aldziz geroago eta kharioago ; eta ororen gañetik legarrak handitzez joaiten zounbat nahi mouzkinak ezdeusetaraturik ere. Erran behar ere, egia beita, laboraria bera eztela hain gutiz bizi noula bizi beitziren aitzinekoak.

Holaz elizate laborantcharentako iraiterik. Zer egin arren eziaz eta hatzamaitia, ber lanareki edo gutiagoreki beharbada, mouzkin haborochagoren egiteko bidea ? Khanbiatu behar dira oraiko laborarien arteko aritzeko moulde elibat ; bena noula ezpeitira beraortarik gogoala jiten, eta bestaldetik ezpeitira adin batera heltu gizounak bere ohiduretarik nekez eta herabez baizik jalkiten, haor eta gizoun gazter beharko zeitze erakoutsi laborantchari daodian jakitate esprabatu batzu, eta hain chuchen hortako beretako eginik izan da aiphatu dugun Paobe ondoko eskola berria. Zouin da laboraria ikhousiren eztiana hori haren hounetan dela ?

Ezta beldurrik ukheiteko eskola hartan gal dezen mouthiko gaztek lur lanetako gogoa, eta jaonturik etcherat utzul ditian : aitzitik. Librieta bezainbat edo haboro beharko dira ari esku lan orotan. Han ikhasikodie laborantchako tresnen erabilten eta behar bezala arthatzen, ahalaz luzaz irañ erazteko ; hazi hounen ezagutzen eta zer lurretan, edo zouñek emanen dian mouzkinik handiena. Ikhasko die lurraren eza-

gutzen, zer dadukan beraortarik eta zer dian eskanenik, houlako edo haloko uzta hobe edukerazteko ; noula aldizka lur batetan ereitziak hounkallu gutiagoreki mouzkinik hobena emanen dian gisan. Ikhaskiko die kabalen arthatzen, bai gizentzekoen, bai lanekoen, bai saltzekoen ; hounkallu hounbaten egiten gorotzaren beharbezala erabilten, bere indar ororen ahalaz begiratzeko, eta ordu hounian lurrari emaiten. Ezta, bihitzez, laborantchari dagodian lanetan bakoitzbat zountan ezpeita trebaturen eskola hartin laborari gei gaztia.


Hantik utzuliko da lur lanian tchestu houn harturik, eta batere hiri handietarat joaiteko trenpiarekin. Bestentako ere etsenplu houna dateke. Ezi jente chehek ikhoustez laborari aberatsen haorrak lur lanari lotzen, gutiago aiher dirateke herritik kanpo joaitera ; haier sogitez ikhasiko beitie lurrak zer emaiten ahal-dian ountsa erabiltez, eta eztira jentiak plañituko langile mentsaz.

Aiphatu nahi ukhen dut eskola hori erakousteko, ahal dukienek orok ountsa eginen diela hartara haoren igorten. Eskola hartin sartzen ahal dira hamahirour ourthetarik eta hemeretzu tara drano. Nahiko dianak jakin zer kondizionetan eta zertsu den cheherroki han erakusten tienak, aski duke hersatsia esklako gehienari : R. P. Donatien, bénédictin, école Saint-Léon, route de Tarbes, Pau.





## ISTORIA ETA ERASI



**B**EHN Pharrast abioan zen Bayounara bidaje bat-en egitera. Aizobati galthatzen dero eia zounbat bide den hara artino. Bestiak arrapostu : « Hogeibat lekoa. » Pharrastek aitzina : « Bai joaiteko, bena utzultzeko ? »

Beste behin, hora zen etchebatetan mintzoziren ehun eta laor ourthetan hil izan zen gizounbatez. Nourbaitek zioan egunko egunian jente aphur heltzen dela halako adiniala. Pharrastek saihetsetik : « Eztuzu segur handi ; aitañi gouria bizi baliz, balikezu harek ehun eta berrogei. »

\* \*

Hartz bateki etchez etche zabilan gizounbatek bere bizia irabazten zian lagunaren jaoz eraztez jenten aitzinian. Aldibatez gaiak eta uholdibatek harturik bidian, arrimatu zen hullaneko etchebatetara eta galthatu hanko naousiari othoi nahi zeronez gai hartako atherbia eman bai eta haren hartzari. Baietz laborriak, bena etzakiala noun ezariko zian hartzia. Bor-dachkotbat etchaitzinian beitzian laborariak, eta han zerraturik etchourdia, idoki zian kankoat ourdia etaigorri barrukialat, eta haren ordari hartzia sar erazi.

Biharamenian badoatza laboraria eta hartz zaña bordalat hartzaren jalkheraztera, bena zer ikhousten die? Bi gizoun lurrian hedallo, hilik, eta hartzak chehekaturik. Ezagutu zien bi gizoun hil hourak etzirela deus besterik baizik eta bi ouhouñ sarthu zirenak gai harten bordala ourdiaren ebastera. Ourdiaren orde ediren zutien bordan hartzia eta herioa.

\*  
\* \*

Laboraribat aston gañen igaraiten zen egun batez Maoleko kolegio bortha aitzinian haorrak jalkhitzen ziren phuntian. Hainbestenareki, astoa hasten zaio orroaz bere indar oroz. Eskolierek, araoz herots hora ezpeitzeren lakhet, erraiten dere gizounttoari : « Ziren bezalako gaizki ikhasia, eztuzia asto hori hobeki hezten ahal eta erakasten ounestatia ? » Igaraile zabarbatek, ikhousirik gizounak etzakiala zer erran, hartzen du haren althia, eta erraiten eskolierrez : Adichkidiak, gizoun horrek eztu ogenik batere ; astoak orano gutiago, bere boztarioa ezpeitu begiratu ahal ukhen hainbeste lagunen ikhoustiareki. »

\*  
\* \*

EspaÑako aitor semek zouñen gora edukiten tien bere izenak, orok dakiena da. Holakobat jin zen aldibatez Hendaia herrila gaiaz, errege bezain nouble, katoliko Aitia saintia bezala eta Job bezain esteiari eskele. Joiten du ostatuko bortha ; bena ostalerra lo zelakoz luzaz haiduru egon behar ukhen zian. Azkenekoz ostalera jeikiten da eta leihuala agertzen erraiten dialarik : « Nour da hor ? » — « Ni nuzu, bestiak arrapostu, Don Juan Pedro Hernandez Rodriguez de Villanueva, conde de Malafra, cavallero de Santiago y de Alcantara. » Ostalerak izen tarrapata horren entzutez erraiten dero espaÑoulari : « Ounsa nahi gabetarik erran behar deizut, eztit ene etchen aski khanbera hainbeste jenterentako. » Erraitiareki leihoa zerra, eta utzuli zen oherat.

\*  
\* \*

Henri IV errege houn eta otshanditakoa igaraiten zen aldibatez Frantzia behereko herri tchipibatetan Jentia bildu zen erregeren aitziniala eta herriko alkate gehiena adelatu erregeri hounki jinezko pheredikubaten egitera. Ari zelarik bere pherekari alkha-

tia, hogei bat urhats hullanian zen astobat orroaz hasten da. Dritcho hounik beitzian Henri erregek erraiten du berhala : « Jaonak othoitzen zutiet, othoi, aldizka mintza ziteie nahi baduzie entzun zitzeikendan. » Han zirenek astoa ohiltu eta alkhatiak eman zian aitzina bere pheredikiari.

\*  
\*\*

Pharrast joan zen behin notariagana zerbait egite-korentako. Bortha truka, eta entzun beitzian : aitzina, sartru zen ; bena etzen ihour ageri, perruket edo phapagai deitzen dien Ameriketako choribat baizik. Urhats biga egiten tu, eta ordian choriak, behar bezala eskolaturik beitzen, erraiten dero : « Jar zite, adichkidea,ene buruzagia berhala eraichten duzu. » Pharrastek ordian, choriari buruz unguraturik eta bouneta eskietan harturik : « Pharka, jaona, ouste nizun choribat zinela. »

\*  
\*\*

*Mochkor elhe.* — Gizounbat ountsatto edanik merkhatian bide bazterrian zegoen, haiduru bezala, zounbat nahi nekez chutik egoiten zen. Lagunbatek erran zeron : « Gizouna, tziaori etcherat. » — « Zoaza zu zoure bidian. » — « Bena beranta duzu, eta eztukezu hoberik hor egonik. » — « Nik? bestiak aitzina; heben berian etchia hatzamanen dit. So'gizu : ungurietako etche guziak oro ikhousten tit utzulikan joaiten bata bestiaren oundotik. Ene etchiaren aldia datekianian heben nagoelarik, zist! jaozibaten sarthuko nuzu barnerat.

\*  
\*\*

Beste bi mochkor ostatutik jalkhiten ziren orri llapa, besoz beso. « Errak to, batak, hi eta ni aberats bagine, beste zounbait bezala, baginikek zertan egar goure sosa. » — « Ago ichilik, astoa, ihardesten dero lagunak; nahi bezañ aberats izanik ere ezginirokek

gaor dugun beno haboro ardou chorroan sar ahal.  
Nour duk arren gu beno aberatsagorik? » — « Gaor  
bai, bena bihar? » Etziren batere gaichi mintzo ez  
bata ez bestia goure bi gizounttoak. Halere orri edo  
beste, biharamenaz orhitzen eztenak, egun houn guti  
duke.

\* \* \*

Aphezkupu bati galthatzen zeren behin zerentako  
Jesus Krist, arraphitz landan, lehenik agertu zen  
emazte elibati. Aphezkupiak ihardetsi : « Haren arra-  
phiztiaren berria bertanago hedatzen. »





MAIATZA edo EPHAILA  
Eg. luzatzen dira oren eta laordenez

+++

- (1) a. o. 3<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 26<sup>min</sup>.
- (2) a. l. 11<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.
- (3) a. b. 17<sup>n</sup>, arratseko 5<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.
- (4) l. l. 24<sup>n</sup>, arratseko 5<sup>or</sup> eta 49<sup>m</sup>.

ARRAMAIATZA edo BAGILA  
Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22<sup>a</sup> drano.

+++

- (1) a. o. 1<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 2<sup>min</sup>.
- (2) a. l. 9<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 9<sup>min</sup>.
- (3) a. b. 16<sup>n</sup>, goizanko or. eta 42<sup>m</sup>.
- (4) l. l. 23, goizanko 9<sup>or</sup> eta 3<sup>min</sup>.

1 Astizken.	J. Filipe et. Jak. Ap.	1 Nesk. IV Th. B.	s. Kler.
2 Ostegun.	s. Atanasi.	2 Igante. 1.	TRINITATE.
3 Ostirale.	Da Khurutze.	3 Astelehen.	s <sup>a</sup> Klotilda.
4 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Monika.	4 Asteharte.	s. Frantzes K.
5 Igante. 4.	s. Pio, V.	5 Astizken.	s. Bonifazi.
6 Astelehen.	s. Johana Eb. B. L.	6 Ostegun.	BESTABERI.
7 Asteharte.	s. Stanizlas.	7 Ostirale.	s. Majan.
8 Astizken.	J. Migel. Ag.	8 Neskanegun.	s. Medart.
9 Ostegun.	s. Gregori, Na.	9 Igante. 2.	s <sup>a</sup> Prima.
10 Ostirale.	s. Antoneñ.	10 Astelehen.	s <sup>a</sup> Margarita.
11 Ne. kanegun.	s. Oriens.	11 Asteharte.	J. BARNABE, a.
12 Igante. 5.	s. Nere et Akil.	12 Astizken.	s. Johane F.
13 Astelehen.	Errogazioniaik.	13 Ostegun.	s. Antoni, Pad.
14 Asteharte.	s. Johane Sala.	14 Ostirale.	J. BIHOTZSAK.
15 Astizken.	s. Eutrope.	15 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Jermenia.
16 Ostegun.	SALBATORE	16 Igante. 3.	s. Frantzes R.
17 Ostirale.	s. Paskal.	17 Astelehen.	s. Avit.
18 Neskan 3	s. Venanzio.	18 Asteharte.	s <sup>a</sup> Marina.
19 Igante.	s <sup>a</sup> Pudenziana.	19 Astizken.	s. Jervasi eta Prot.
20 Astelehen.	s. Bernardein.	20 Ostegun.	s <sup>a</sup> Juliena F.
21 Asteharte.	s. Petiri Zel.	21 Ostirale.	s. Louis Gonz.
22 Astizken.	s. Kiteria.	22 Neskanegun.	s. Paoleñ.
23 Ostegun.	s. Ubalde.	23 Igante. 4.	s. Eusebio.
24 Ostirale.	A. B. Laguntz.	24 Astelehen.	J. JOHANE BA.
25 Neskanegun.	s. Gregori VII.	25 Asteharte.	s <sup>a</sup> Eurosia.
26 Igante.	PHENTEKOSTE.	26 Astizken.	s. Johane eta Paola.
27 Astelehen.	s. M. Mad. P.	27 Ostegun.	s. Prosper.
28 Asteharte.	s. Agosti.	28 Ostirale.	s. Irene.
29 Astiz. IV Th. B.	s. Garzia.	29 Neskanegun.	J. PETIRI et P.
30 Ostegun.	s. Felis.	30 Igante. 5.	J. Pholer. orh.
31 Ostir. IV Th. B.	s <sup>a</sup> Anjela.		

## UZTAILA

Egunak llaburten dira oren 1ez.



- (1) a. o 1<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 27<sup>m</sup>.
- (2) a. l. 8<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 29<sup>m</sup>.
- (3) a. b. 15<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup>, eta 20<sup>m</sup>.
- (4) l. l. 23<sup>n</sup>, goizanko 2 orenan.
- (5) a. o. 30<sup>n</sup>, arratseko 1<sup>or</sup>, eta 43<sup>m</sup>.

## ÁGORRILA

Egunak llaburten dira oren 1 1/2



- (6) a. l. 6<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 11<sup>m</sup>.
- (7) a. b. 13<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 37<sup>m</sup>.
- (8) l. l. 20<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 1<sup>m</sup>.
- (9) a. o. 29<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 35<sup>m</sup>.

- |                |                   |
|----------------|-------------------|
| 1 Astelehen.   | s. Tierri.        |
| 2 Asteharte.   | A. B. BIZITAZ.    |
| 3 Astizken.    | s. Gillen.        |
| 4 Ostegun.     | s. Léon II.       |
| 5 Ostirale.    | s. Zirile.        |
| 6 Neskanegun.  | s. Trankile.      |
| 7 Igante. 6.   | J. K. Odol Pr.    |
| 8 Astelehen.   | sa Beronika.      |
| 9 Asteharte.   | sa Elisabet, P.   |
| 10 Astizken.   | Zazpi anaie m.    |
| 11 Ostegun.    | s. Pio.           |
| 12 Ostirale.   | s. Johane G.      |
| 13 Neskanegun. | s. Anaklet.       |
| 14 Igante. 7.  | s. Bonaventura.   |
| 15 Astelehen.  | s. Henrik.        |
| 16 Asteharte.  | A. B. KARMEL.     |
| 17 Astizken.   | s. Aletsis.       |
| 18 Ostegun.    | s. Kamille.       |
| 19 Ostirale.   | s. Bizente Paolo. |
| 20 Neskanegun. | s. Filibert.      |
| 21 Igante. 8.  | sa Pratseda.      |
| 22 Astelehen.  | sa M. Madalena.   |
| 23 Asteharte.  | s. Apolinari.     |
| 24 Astizken.   | s. Kristina.      |
| 25 Ostegun.    | J. JAKOBE, ap.    |
| 26 Ostirale.   | sa Aña.           |
| 27 Neskanegun. | s. Galatori.      |
| 28 Igante. 9.  | s. Nazari.        |
| 29 Astelehen.  | sa Marta.         |
| 30 Asteharte.  | s. Abdón.         |
| 31 Astizken.   | s. Iñazio Loi.    |

- |                |                    |
|----------------|--------------------|
| 1 Ostegun.     | J. Petiri katiet.  |
| 2 Ostirale.    | s. Esteb. err.     |
| 3 Neskanegun.  | J. Ezteber. edir.  |
| 4 Igante. 10.  | s. Dominiche.      |
| 5 Astelehen.   | A. B. Elhurr.      |
| 6 Asteharte.   | J. K. Transfig.    |
| 7 Astizken.    | s. Kajetan.        |
| 8 Ostegun.     | s. Ziriako.        |
| 9 Ostirale.    | s. Jermeñ.         |
| 10 Neskanegun. | s. Laorentz, m.    |
| 11 Igante. 11. | s. Tiburze.        |
| 12 Astelehen.  | sa Klara.          |
| 13 Asteharte.  | sa Radegonda.      |
| 14 Astizken.   | s. Eusebio.        |
| 15 Ostegun.    | A. D. M. Zelialat. |
| 16 Ostirale.   | s. Rok.            |
| 17 Neskanegun. | s. Emilia.         |
| 18 Igante. 12. | s. Jookino.        |
| 19 Astelehen.  | sa Filomena.       |
| 20 Asteharte.  | s. Bernat.         |
| 21 Astizken.   | s. Julien Lesk.    |
| 22 Ostegun.    | s. Ipolita.        |
| 23 Ostirale    | s. Filipe Ben.     |
| 24 Neskanegun. | J. BARTOL., ap.    |
| 25 Igante. 13. | s. Louis, erreg.   |
| 26 Astelehen.  | s. Zefirri.        |
| 27 Asteharte.  | s. Jusef Kal.      |
| 28 Astizken.   | s. Agosti.         |
| 29 Ostegun.    | J. Joh. Lephom.    |
| 30 Ostirale.   | sa Rosa, Lima.     |
| 31 Neskanegun. | s. Remoun N.       |



## BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburzen dira or. 1 eta 3/4 ez.

+++


- (1) a. l. 5<sup>n</sup>, gaiko oren eta 36<sup>min</sup>.
- (2) a. b. 12<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 28<sup>m</sup>.
- (3) l. l. 20<sup>n</sup>, arrastiriko oren eta 43<sup>m</sup>.
- (4) a. o. 27<sup>n</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eta 45<sup>m</sup>.

## URRIETA

Eg. llaburzen dira oren 1 eta erdiz.

+++

- (1) a. l. 4<sup>n</sup>, goizanko 9 or. eta
- (2) a. b. 12<sup>n</sup>, gaiko oren eta 21<sup>min</sup>.
- (3) l. l. 20<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 7<sup>min</sup>.
- (4) a. o. 27<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 15<sup>m</sup>.



1 <b>Igante.</b> 14.	s. <i>Jiles.</i>	1 Asteharte.	s. Remi.
2 Astelehen.	D. Justi.	2 Astizken.	Ainguru beg.
3 Asteharte.	s. Lizier.	3 Ostegun.	s. Binzeslaz.
4 Astizken.	sa Frantzes Ch.	4 Ostirale.	s. Frantzes, As.
5 Ostegun.	s. Laorenz J.	5 Neskanegun.	s. Apolinari.
6 Ostirale.	s. Onesiforo.	6 <b>Igante.</b> 19.	ARRUSARIOA .
7 Neskanegun.	s. Zebero.	7 Astelehen.	sa Fide.
8 <b>Igante.</b> 15.	A.B. <i>SORTZIA.</i>	8 Asteharte.	sa Birjita.
9 Astelehen.	s. Omer.	9 Astizken.	s. Denis.
10 Asteharte.	sa Pulkeria.	10 Ostegun.	s. Frantzes B.
11 Astizken.	s. Iazinte.	11 Ostirale.	sa Sabina.
12 Ostegun.	s. Gi.	12 Neskanegun.	sa Daonina.
13 Ostirale.	sa Ujenia.	13 <b>Igante.</b> 20.	A.B. <i>Amatarz.</i>
14 Neskanegun.	Dna Khurutze.	14 Astelehen.	s. Kalista.
15 <b>Igante.</b> 16.	A. B. <i>Izen Saint.</i>	15 Asteharte.	sa Teresa.
16 Astelehen.	s. Ziprien.	16 Astizken.	s. Beltran.
17 Asteharte.	s. Frantz. zaor.	17 Ostegun.	sa Edvije.
18 Astiz. IVTh.B.	s. Jusef Kup.	18 Ostirale.	J. LUK, Eb.
19 Ostegun.	s. Janvier.	19 Neskanegun.	s. Grat, Olor.
20 Ostir. IVTh.B.	s. Eustache.	20 <b>Igante.</b> 21.	A.B. <i>Garbitarz</i>
21 Neski. IVTh.B.	J. MATHIU, Eb.	21 Astelehen.	s. Johane K.
22 <b>Igante.</b> 17.	A. B. <i>Dolor.</i>	22 Asteharte.	sa Ursula.
23 Astelehen.	sa Tekla.	23 Astizken.	s. Petiri, Alk.
24 Asteharte.	A. B. Librazalia	24 Ostegun.	s. Rafael, ark.
25 Astizken.	s. Aostinde.	25 Ostirale.	s. Krespi.
26 Ostegun.	s. Tomas Vil.	26 Neskanegun.	Salbazalia.
27 Ostirale.	s. Kosma eta Dam.	27 <b>Igante.</b> 22.	A. B. <i>Patron.</i>
28 Neskanegun.	s. Faoste.	28 Astelehen.	J. SIMOUN, ap.
29 <b>Igante.</b> 18.	J. MIGEL, ark.	29 Asteharte.	sa Eusebia.
30 Astelehen.	s. Jeronimo.	30 Astizken.	s. Kazien.
		31 Ostegun.	s. Zirizio.



AZAROA edo GOROTZILA  
Egunak llaburtzen dira orenez.

\*\*\*

- (F) a. l. 2<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 34<sup>m</sup>.
- (G) a. b. 10<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 43<sup>m</sup>.
- (D) l. l. 18<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 33<sup>m</sup>.
- (G) a. o. 25<sup>n</sup>, arrastiriko or. eta 27<sup>m</sup>.

ABENTIA edo NEGILA  
Eg. llaburtzen dira 27 min., 22<sup>no</sup>.

\*\*\*

- (F) a. l. 2<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 59<sup>m</sup>.
- (G) a. b. 10<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 2<sup>m</sup>.
- (D) l. l. 18<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 41<sup>m</sup>.
- (G) a. o. 25<sup>n</sup>, gaiherdi eta 25<sup>m</sup>.

- |    |                    |
|----|--------------------|
| 1  | Ostirale.          |
| 2  | Neskanegun.        |
| 3  | <b>Igante.</b> 23  |
| 4  | Astelehen.         |
| 5  | Asteharte.         |
| 6  | Astizken.          |
| 7  | Ostegun.           |
| 8  | Ostirale.          |
| 9  | Neskanegun.        |
| 10 | <b>Igante.</b> 24  |
| 11 | Astelehen.         |
| 12 | Asteharte.         |
| 13 | Astizken.          |
| 14 | Ostegun.           |
| 15 | Ostirale.          |
| 16 | Neskanegun.        |
| 17 | <b>Igante.</b> 25  |
| 18 | Astelehen.         |
| 19 | Asteharte.         |
| 20 | Astizken.          |
| 21 | Ostegun.           |
| 22 | Ostirale.          |
| 23 | Neskanegun.        |
| 24 | <b>Igante.</b> 26. |
| 25 | Astelehen.         |
| 26 | Asteharte.         |
| 27 | Astizken.          |
| 28 | Ostegun.           |
| 29 | Ostirale.          |
| 30 | Neskanegun.        |

- |              |                        |
|--------------|------------------------|
| DONISANTORE. | PURG. ARIMAK           |
|              | <i>Errelikia S.</i>    |
|              | s. Charles Bor.        |
|              | s. Zakaria.            |
|              | s. Leonart.            |
|              | s. Florent.            |
|              | Lao Martirak.          |
|              | s. Teodoro.            |
|              | ELIZEN SAKR.           |
|              | J. MARTHINE.           |
|              | s. Marti.              |
|              | s. Stanislaz K.        |
|              | s. Didazi.             |
|              | sa Jertruda.           |
|              | s. Edmon.              |
|              | s. <i>Gregori T.</i>   |
|              | s. Odon.               |
|              | sa Elisabet Ong        |
|              | s. Felis, Val.         |
|              | A. B. <i>Eskentzia</i> |
|              | sa Zezila.             |
|              | s. Klement.            |
|              | s. <i>Johane Kh.</i>   |
|              | sa Katalina.           |
|              | s. Konrad.             |
|              | s. Virjilo.            |
|              | s. Miōrin              |
|              | s. Saturni.            |
|              | J. ANDREU, Ap.         |

- |                     |                                |
|---------------------|--------------------------------|
| I <b>Igante.</b>    | ABENTUKO 1 <sup>a</sup> .      |
| 2 Astelehen.        | sa Bibiana.                    |
| 3 Asteharte.        | s. Frantzes Zab.               |
| 4 Astizken.         | s. Barbara.                    |
| 5 Ostegun.          | s. Sabaz.                      |
| 6 Ostirale.         | s. Nikolas.                    |
| 7 Neskanegun.       | s. Anbrosi.                    |
| 8 <b>Igante.</b>    | A. B. KONŽEP.                  |
| 9 Astelehen.        | s. Jeronze.                    |
| 10 Asteharte.       | sa Ulalia.                     |
| 11 Astizken.        | s. Daniel.                     |
| 12 Ostegun.         | s. Melkiade                    |
| 13 Ostirale.        | sa Luzia.                      |
| 14 Neskanegun.      | s. Arzene.                     |
| 15 <b>Igante.</b>   | <i>Abentuko 3<sup>a</sup>.</i> |
| 16 Astelehen.       | sa Adelaida.                   |
| 17 Asteharte.       | s. Gazioñ.                     |
| 18 Astiz. IV Th. B. | s. Urbeñ.                      |
| 19 Ostegun.         | s. Liberat.                    |
| 20 Ostir. IV Th. B. | s. Lazaro.                     |
| 21 Nesk. IV Th. B.  | J. TOMAS, Ap.                  |
| 22 <b>Igante.</b>   | <i>Abentuko 4<sup>a</sup>.</i> |
| 23 Astelehen.       | s. Honorat.                    |
| 24 Asteharte.       | sa Delphina.                   |
| 25 Astizken.        | EGUBERRI.                      |
| 26 Ostegun.         | J. EZTEBE, M.                  |
| 27 Ostirale.        | J. Johane, Eb.                 |
| 28 Neskanegun.      | Haor Inozent.                  |
| 29 <b>Igante.</b>   | s. Tomas, Kant.                |
| 30 Astelehen.       | s. Manzuet.                    |
| 31 Asteharte.       | s. Zilbestre.                  |

\*\*\*\*\*

### OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 <sup>an.</sup>
UDA hasten da arramaiatzeko	21 <sup>an.</sup>
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 <sup>an.</sup>
NEGIA hasten da abentuko	22 <sup>an.</sup>

\*\*\*\*\*

### MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : m., asteharte oroz ; f., buruilako 6<sup>n</sup>. — ATHAR-RATZEN : m., astelehenez, amoustetik ; f., Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : m., asteleh. amous. ; f., Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : m., ostir., amoust. ; f., Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26<sup>n</sup>. — GARRUZEN : m., ostir. amoust. ; f., agorrila 1<sup>n</sup> *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : m., neskaneg., amoust., f., baranthail. 3<sup>n</sup> *eta* aphiril. 15<sup>n</sup>. — AHAZPARNEN : m., asteh. amoust. ; f., Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : m., asteh. amoust. — NAVARENKOSEN : m., astizk. ; f., Erramu aitzineko astizkn, *eta* abentu 8<sup>n</sup>. — ORTHEZEN : m., asteh. ; f., martchoko *eta* urrietako lehen astehn. — OLOROUN : m., ostir. *eta* asteh. ; f., maiatz. 1<sup>n</sup> ; *eta* buruila 8<sup>n</sup>, hirour eg. — PAOBEN : m., astel. *eta* osteg., f., Gorozum. lehen asteleh<sup>n</sup>, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. — SALIESEN : m., ostegunez ; f., baranth. heren astizkn *eta* urrietako azken ostegunian. — SALBATARREN : m., neskanegunian.





# Edirengia



I. Egiazko erreligionia .....	81
II. Uskara eta Uskal Herria.....	84
III. Abarizia aphurbat.....	90
IV. Laborantcha :	
1º Uztak 1900 <sup>an</sup> .....	92
2º Kabaletako eritarzuna .....	95
3º Laborantchako eskola berribat.....	98
V. Istoria eta erasi.....	101



# Armanak Askara

edo

# Z

## Iberouko Egunaria

1902 gerren orritheko

Jinkoa eta Herria !

Zuhurtarzuna eta lana !

Eta bizi bethi Uskalduna !

Iao ! Iao !

I-a-a-a-a-o-o-o-o-o !

SALTZEN DA


Maolen

Atharratzen

DETCHEVERRY enian

MENDIONDO-SANTZENIAN

Prezioa : SOS BAT



## Edirengia

I.	Zouin erreligion haita.....	105
II.	Bi anaie martiren istoria.....	109
III.	Komunetako budjeta.....	111
IV.	Gazteria ostatietan.....	113
V.	Laborantcha :	
1º	Uztak 1901 <sup>an</sup> .....	115
2º	Aihenaren eritarzunbat : Filoxera.....	118
3º	Espanako lur sagarra.....	124
VI.	Istoria eta erasi .....	125

